

LITURGIA-GIDOIA

CARITASEN KANPAINA 2015, irailak 20

CARITAS ENPLEGUAREN ALDE

Sarrera:

Edozein preziotan irabazteak, ospetsu izateak, maila gorenera igotzeak..., horrexek mugiarazten ditu asko eta asko gure gizartean. Jesus, halere, ez da horrelakoa. Entzun dezagun Ebanjelioa: "Lehena izan nahi duena, izan bedi azkena eta denon zerbitzari". Harentzat benetako jakituria eta handitasuna xumetasunean dago, besteei egiten diegun zerbitzuan eta nork bere buruari dion leialtasunean.

Guk ebanjelioaren askapen-bide horretatik jarraitu nahi dugu, Caritas gisa hainbat ekintza, programa eta jarduera bultzatzen. Oso emaitza latzak ekarri dizkigun krisialdi ekonomiko larri baten ondorioak jasaten ari gara oraindik ere. Egoera honen erdian, iraupen luzeko langabetuei eta badaezpadako egoeran daudelako zailtasunak dituztenei laguntzeko hainbat gauza egiten ari gara. Gaur, bereziki gogoan izango ditugu eta hitz ematen dugu, erronka hori geure eginez, Jesukristoren gurutze salbatzailearen bidetik jarraituko dugula.

Penitentzia-ekintza

- Zuk, maitasunez eta indarrez laguntzen diguzun horrek. **Erruki, jauna.**
- Zuk, zure bizitza gu salbatzeko eman duzun horrek. **Kristo, erruki.**
- Zuk, jakituriaz gidatzen gaituzun horrek. **Erruki, jauna.**

Irakurgaiak

Jesusen jarraitzaileek uste zuten arrisku handiak hartzen zituela. Uste zuten, ona izateko, ez zela horrenbesteraino nahasi behar bizimodua. Ez zuten ezagutzen Itun Zaharraren jakituriazko mezua: zuzena ez dago eroso; erasoak jasaten ditu desberdina delako, besteei men egiten ez dielako.

Guri ere kosta egiten zaigu Jesusen pentsamoldea eta Jainkoarengandik datorren jakituria geure egitea. Errealitateari Espirituaren ikuspegiarekin begiratzen dionak Jesus miretsiko du eta arrazoi guztia duela aitortuko du.

Homiliarako proposamena

Zuzenak ez du bizimodu errazik; jazarri eta hil egingo dute (1. irakurgaia eta Ebanjelioa). Esperientziak baieztatu egiten du Bibliak esana. Jendeak ez zu zuzentasuna bilatzen, ospea, handitasuna eta boterea baizik (Ebanjelioa); hori lortzeko, jendea irrikatu egiten da, lehiatu, baita batzuetan hiltzera iritsi ere (2. irakurgaia). Jesusen jarraitzaileak ez du horrela jokatu behar; beste jokabide-irizpide batzuk ditu eta denen zerbitzura dago, batez ere, atzenekoen zerbitzura (Ebanjelioa).

LANIK EZA

Ez dago zalantzarik gaur egun bizi ditugun sakoneko arazoetako bat langabezia dela, krisialdi ekonomikoa eta lan nahikorik ez edukitzea, horrek dituen ondorio guztiekin. CARITASek halaxe gogorarazten digu, nahiz denok dakigun egia dela, baina lehen aipatzen genuen ebanjelioaren ikuspegiarekin egiten du; izan ere, hitzetatik eta sentimenduetatik ekintzetara igaro gaitzela baita bere helburu bakarra, norberak dituen aukeren eta erantzukizunen barruan betiere.

Aurtengo gogoeta Elizari zuzentzen zaio oro har, baina bereziki Caritasi, eta galdetu nahiko genuke zer egiten dugun guk enpleguari begira, egin dezakegunaren barruan. CARITAS ENPLEGUAREN ALDE da, gaurko egunean, motibarazten gaituen goiburua.

Francisco Aita Santuak gogorarazten digunez "*lana gutxitzen denean, duintasuna gutxitzen da*". Egia biribila da hori, lana tresnarik garrantzitsuenetako bat delako pertsonak gizarteratzeko eta gizartean bizikidetzatza harmoniatsua izateko.

Egia da badirudiela Gipuzkoan lanaren egoera hobetzen ari dela, datuek horrela adierazten dute, baina ezin ditugu ahaztu lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboak eta aspalditik langabezia aurkitzen direnak, seme-alaben kargu dauden emakumeak, arazo pertsonal larriak dituzten pertsonak, heziketa gutxiko etorkinak... esperientzia errealista batzuk sortu nahi ditugu eta sortzen joan behar dugu, baina aldi berean, etorkizunerako baliagarriak eta sortzaileak izan behar dute, normalkuntza sustatu behar dute.

1997. urtean SAREA izeneko Fundazio bat antolatu zuen Gipuzkoako CARITASek, laneratzea erraztu eta enplegua sortuko duten jarduerak garatzeko helburuz. Ekimen horretatik beste PROIEKTU batzuk sortu dira pertsonen enplegu-aukerak hobetzeko, esate baterako, ile-apaindegian eta estetikan, baratze ekologikoetan, bizikletak diseinatu, margotu eta pertsonalizatzeko lanetan...

Jesusek, dakigun moduan, esperientziaren bitartez erakusten zuen. Bizitzaz egiten zuen lekukotza eta mezuarekin zuen koherentzia erakargarri ziren. Jende behartsuarengandik hurbil egoten eta lagungarri izaten saiatzen zen. Horrela jokatu behar dugu guk ere, Eliza bezala, nahiz eta jendeak ez duen ulertzen, Hura ere ulertzen ez zuten bezalaxe, agian garbiegia delako eta bere xedea ezkutatzen ez duelako: bere bizitza ematea, leialtasuna edukitzea, ondorio guztiekin sakrifikatzea.

Zerbitzua eskuzabalki eskaintzeak eta benetako umiltasuna erakusteak kristauon ezaugarri izan behar dute, bokazioz. Elizan, maitasunik handiena duena da pertsonarik balioetsuena, duinena, eta, beraz, garrantzitsuena, hots, baliorik handiena duena, bestela ez duelako ezer onik egiteko balio.

Kredoa

Herri Otoitza

- ♥ Otoitz egiten dugu mundu osoaren alde, garapenak eta elkartasunak aurrera egin dezaten, eta horrela, muturreko lehiak eta irrikak gutxitu **daitezten. *Eska diezaiogun Jaunari.***
- ♥ Otoitz egiten dugun elizaren alde, apaltasunez joka dezan eta eskuzabalki eta eraginkortasunez zerbitzatu dezan etengabe. *Eska diezaiogun Jaunari.*
- ♥ Otoitz egiten dugu politikarien alde, herritarren mesederako eta, bereziki, langabetuen mesederako lan egin dezaten. *Eska diezaiogun Jaunari.*
- ♥ Eta otoitz egiten dugu gure Komunitatearen alde, Jesusek emandako maitasunaren irudi adierazkor izan dadin. *Eska diezaiogun Jaunari.*

BAKEAREN ALDE

Bakea esatea Jaungoikoa esatea da, ontasunezko, zuzentasunezko eta maitasunezko etorkizun bat iragartzea. Horrelako izan baitzen Jesusen bizitza. Gure bizitzak behartsuenei laguntzera, eskuzabaltasunez jokatzera eta zerbitzatzera bidera ditzala Harekin dugun atxikimenduak. Kristorengan gorpuztu den Jaungoikoaren kontsolamenduak bultzatzen gaitzala zerbitzu horretan ahalegintzera, goretetik datorkigun jakituria delako.

